

·Hilabete honetako gaia: Urretxu eta Zumarraga: ibaiaren alde batetik bestera begira

·Zuek bai jakin!/: Julia Lizarralde ·Erreportajea: Otamotz.com: hemen da herritarren web

gunea ·Izerdi patsetan: Jesus eta Unai de Miguel ·Boteprontoan: Gorka Erostarbe

Herri Aldizkaria Otamotz

2007ko

martxoa

125. alea



asirauto



Mugitegi industrialdea, URRETXU

Telf. eta fax: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79



VW Passat Variant 1.9 TDI 130CV - 2003



Peugeot 206 CC 2.0i - 2003



Hymmermobil integral 554B - 1991



VW Touran 1.9 DTI 105CV - 2005



Audi A4 Avant 1.8T 163CV Quattro - 2002



Citroën Berlingo 1.9D Combi - 2003



Citroën Xsara 1.9 HDI 90CV - 2001



VW Passat Variant 2.0 TDI 140CV - 2006



Renault Scenic DCI 100CV - 2005

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxu eta Zumarraga: ibaiaren alde batetik bestera begira
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**
Nola bizi duzu urretxuar eta zumarragarren arteko harremana?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 16 Klik eta klik**
Jose Luis Garmendia
- 19 Gure gomendioa**
- 20 Zuek bai jakin!**
Julia Lizarralde
- 24 Erreportajea**
Otamotz.com: hemen da herritarren web gunea
- 26 Izerdi patsetan**
Jesus eta Unai de Miguel: txirrindularitza familia giroan
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Gorka Erostarbe



Ibaiaren alde batetik bestera

Toki gutxitan izango dira elkarrengandik horren gertu dauden bi herri. Urretxu eta Zumarraga elkarri itsatsita eta begira bizi dira. Horrek gauza onak baditu, baina hikamikak ere sortzen ditu. Azkenaldiko udal mailako eztabaiden ondoren, giroa baretzeko asmoz, zumarragartasunari eta urretxuartasunari buruz hitz egiten izan gara bi zumarragar petorekin eta beste bi urretxuarrekin. Gainera, Antonio Prada Zumarragako artxibozainak bi herrien arteko harreman historikoaren laburpentxoak egin digu.

Pradak azaldutakoaren arabera, inguru honetako lehen biztanleak ibaiaren bi aldeetara, mendien magalean, bizi ziren. Hala, eliza mendian egin zuten: Santa Maria de Zumarraga, egun Antigua. "Antiguakoa izan zen inguru honetako lehen parrokia eta, beste baten faltan, hura zen garai hartako lurraldetasun erreferentea. Ibaiak ez zituen bi herri banatzen, elementu geografiko hutsa zen. Irimo magaleko biztanleak Santa Maria de Zumarragaren menpekoak ziren".

1383an beste lurraldetasun erreferente bat sortu zen: Urretxuko Udala. Harrigarria badirudi ere, Urretxu Gaztelako gerraren ondorioz sortu zen. "Enrikek Pedro I erregeari tronua kendu nahi zion. Biek aliatuak bilatu zituzten eta hemen Enrikek garrantzia handiko bat

lortu zuen: Lazkaoko jauna. Bere laguntza eskertzeko, 1366an Zumarragako elizaren gaineko agintea eman zion".

Zumarragarrak ez zeuden gustura Lazkaoko jaunaren mandatupean eta batzuek erregearen menpeko zuzenak izatea eskatu zuten. "Dirudunenak izango ziren, seguru aski, erregearen babesa eskatu zutenak: villarreal izatea, alegia. Juan I erregeak eman zien Villarreal de Urrechua titulua. Bi herriak modu ezberdinean sortu ziren, beraz: Zumarraga bere kasa eta Urretxu erregearen eskutik. Urretxu sortu eta gutxira Zumarragako biztanleak juridikoki urretxuar izatera pasatu ziren eta Lazkaoko jauna haserretu egin zen, noski. Azkenean, bi herriak Seguraren menpera pasatu ziren: Segura villarreal handi eta boteretsua zen".

1411n Seguraren babesetik irten ziren eta Zumarraga Lazkaoko jaunaren eskura pasatu zen berriro. Mende erdialdera libratu zen jauntxoaz, Enrike IV erregeak guztiak Andaluziara bidali zituenean.

Orduetik, zer? Pradak bi herrien arteko harreman historikoa "ona" izan dela dio. "Eguneroko bizitzan elkarlana nagusi zen. Bideak egiteko eta konpontzeko, arraina eta haragia ekartzeko... ados jartzen ziren. Bideak partekatzen zituztenez, ez zuen zentzurik batek bere zatia egoera onean edukitzea eta besteak txarrean". Dena den, garai batean bi herriak ez zeuden bata bestearengandik horren gertu. "Baserrietan bizi ziren eta igandeko meztan elkartzen ziren. Udalak meza ondoren jakinarazten zituen bere aginduak. Urretxu ibaitik gertu samar egin zen eta

Zumarraga mendian. Hazten joan zen heinean, Eitzaga kolonizatu zuten. Gero, XVI. mendean, Kalebarrenera jaitsi ziren". Muga beti ibaia izan da, Urretxuren sorreratik. Bi herrien arteko istilurik handienak ibaiaren ibilbidea aldatu zenean sortu ziren, trenbidea heltzearekin. "Ibaiak meandroa egiten zuen trenbidea pasatu behar zen tokian: Isabeleko zubia eta Galeperra artean. Zubia egitea baino errazagoa zen ibaia desbideratzea eta hori egin zen. Ibaia mugitu aurreko muga mantentzea erabaki zen, baina azkenean erreka agindu zuen".

Pradak dioenez, Zelaikoa meandroan bizi zen familia izan zen euren etxea eta lursaila Zumarragara pasatzea eskatu zuena. "Zumarragako erdigunea Urretxukoa baino askoz ere gertuago zutenez, oraindik Labeaga kalea egin gabe zegoen, Zelaikoa etxean bizi zirenek Zumarragara pasatzea erabaki zuten. Udalak euren esku utzi zuen hori lortzea eta Foru Aldundiak baiezkota eman zuen. Urretxu aurka azaldu zen eta kontua epaitzietara iritsi zen. 20 urte ondoren, gaia Madrilgo gorteetan aztertu zuten eta haiei logikoena lursail hura Zumarragara pasatzea iruditu zitzaion".

Zumarragak herri erdian lur pila irabazi zuen. Kontuan izan behar da Secundino Esnaola kalearen zati handi bat Urretxurena zela duela 200 urte. Horrek bi herrien arteko harremana gaiztotu zuen. Gainera, garai berean beste istilu bat izan zen antzinako errege bidearen inguruan. "Errege bidea Eitzagatik jaitsi eta Eliz-Kale, Piedad eta Kalebarreneratik pasatzen zen. Gero, Urretxuko aldapa igotzen zuen eta, Labeaga eta Ipeñarrieta zeharkatu ondoren, Bergarako bidegurutzera joaten

zen. Zumarragak Ipeñarrieta aldera zihoran bidexka zuen, motzagoa eta aldaparik gabekoa. Trenbidea egiteko bide hau txikitu zen, baina enpresa konpontzera behartuta zegoen eta hautsi aurretik baino handiagoa egitea adostu zuen Udalarekin", dio Pradak.

Horrek urretxuaren artean kezka piztu zuen. Izan ere, "diru-iturri nagusietako bat errege bideko merkatal trafikoa zen, baina dilijentziak Zumarragako bidea erabiltzen hasten baziren, hori galduko zuten".

Hirugarren istilu nagusiak ere komunikabi-

"Bi herriak modu ezberdinean sortu ziren: Zumarraga bere kasa eta Urretxu erregearen eskutik"

deekin zerikusia du. "Tren geltokia kostaldeko errepidearekin lotu behar zen, baina udalak ez ziren ados jartzen. Zumarraga errepide berria ordaintzeko prest zegoen, Secundino Esnaola, Legazpi, Soraluze, Kalebarren eta Ipintzatik pasatzen bazen. Bidea laua zen eta ez zegoen mendiari zatirik kendu beharrik. Urretxukoek, ordea, errepidea bertatik joatea nahi zuten. Horretarako, udaletxeari arkua kentzeko eta elizaren zati bat botatzeko prest zeuden. Aldundiak Urretxukoek proposamena hobetsi zuen eta Zumarragakoek ez zuten ulertu. Soraluze alkatea asko haserretu zen eta Zumarraga Gipuzkoako herrien ermandadetik irten zen".

Pradak dioenez, urretxuarrak zumarragaren asmoen beldur ziren. "Zumarragak bi herriak batzea proposatu zuen behin baino gehiagotan, lehen aldiz 1843 inguruan, baina urretxuarrak hori euren kalterako izango zela esaten zuten. Urretxuarrak Zumarragak euren herria bereganatu nahi zuela uste zuten".

Batze saiakera serioena 60ko hamarkadakoan izan zen. "Hitzarmena Gobernadore Zibilarengana bidali zen, bi herrien interesak errespetatzen zirela berma zezan eta bere onespina eman zuen. Herria lautuan zatituko zen eta elizak El Salvadorrekoa, Zumarragako parrokia, Pagoetakoa eta Urretxuko parrokia izango ziren. Bestalde, Kalebarreneratik Isabel tabernako zubira arte ibaia estaltzeko asmoa zegoen; Udaletxea Zumarragan egongo zen, baina hirigintza batzordea Urretxun; festa nagusiak Santalutziak izango ziren... Dena oso ondo lotuta zegoen". Herri berriari izena jartzeko ideia lehiaketa ere izan zen: Urretxuaga, Zumavilla, Villazuma... bezalako izen xebreak aipatu ziren.

Urretxuko udalbatzak Zumarragarekin batzea onartu zuen 1966an, baina... "Ekuadorren zegoen Arozena abizeneko misiolari urretxuarra etorri zen eta jendea mobilizatu zuen batzearen aurka. Manifestazioak ere egon ziren eta Urretxuko Udalak atzera egin behar izan zuen. Zumarragako jendea, berriz, alde zegoen", dio Antonio Pradak.

Dena den, bi herrien arteko arazoak puntualak izan direla eta elkarlana nagusi izan direla argi utzi nahi du. Hala ere, elkarbizitzak aparteko arazorik sortu ez badu ere, onena batzea izango litzatekeela uste du.

Valentin Berriotxoak: "Gurea txikiagoa da eta txikiek elkartzeko eta euren burua defendatzeko joera dute"


Berriotxoatarrek ez dute aurkezpen handirik behar. Valentinek urretxuar petotzat du bere burua eta hainbat ekimenetan parte hartu du. Herriko nondik norakoen inguruko kezka duen laguna izanik, luze eta zabal hitz egin du zumarragarrekin duten harremanaz.

Ez du uste urretxuarren eta zumarragarren artean alderik dagoenik. "Alde bakarra dago: batzuek Urretxu maite dute eta besteek, ordea, Zumarraga. Horrek ez du esan nahi batzuek besteen aurkako ezer izan behar dutenik. Hori bai, bakoitzak bereari lehentasuna ematen dio".

Dena den, urretxuarrek herria indar bereziarekin defendatzen dutela onartzen du. "Gurea txikiagoa da eta txikiek elkartzeko eta euren burua defendatzeko joera dute. Zumarragakoa naizela esaten didaten bakoitzean, argi uzten dut Urretxukoa naizela. Horrelakoetan *nola jartzen zareten!* esaten digute, baina guk argi utziko ez bagenu, desagertu egingo ginateteke...".

Berriotxoak batzuen eta besteen arteko borrokak gogoratzen ditu. "Erreka erdian zela, harrika aritzen ginen. Gero, guztiok elkarrekin futboleko jokatzeko ginen. Bat egite saiakera ere oroitzen dut. 14 bat urte izango nituen, baina *Fusión no, viva Villarreal* kartelak gogoratzen ditut. Gure bi herriez osatutako herri berriarentzat izen xelebreak asmatu zirela ere gogoratzen dut, baita udaletxea erreka gainean eraikitzeaz hitz egin zela ere".

Valentinen familia bi herriak bat-egitearen aurka zegoen. "Txikia, handiarekin elkartzen denean, bereganatua da. Zumarraga



Urretxu baino ezagunagoa zen eta izen hori geldituko zen azkenean. Hori argi genuen eta gurasoak fusioaren aurka zeuden. Zumarragako batzuk ere bai, e!". Argi utzi nahi du, hala ere, bi herrietako bizilagunen arteko harremana ez dela sekula gaiztotu. "Pentsa, alkateek fusioa proposatu zuten, koadriletan bi herrietako jende aurki daiteke, urretxuarrak eta zumarragarrik elkarrekin ezkontzen dira... Nire emaztea ere Zumarragakoa da! Eztabaidaren bat izan dugu, baina arazorik ez sekula. Koadrilan ere elkarri zirikatzen diogu noizean behin, baina ez gara handiagoetara pasatzen".

Hala izanik, "harriduraz" bizi ditu azkenaldian bi udalen artean izan diren hika-mikak. "Elkarrizketa falta da arazoa. Bi

aldeetako bat ez da borondate onez jokatzen ari. Eurek jakingo dute ondo nor duen erru handiagoa. Areizaga-Kalebarrenekoa eta errotondakoa ez ditu inork ulertzen. Betidanik elkarrekin bizi gara eta! Halako jarrerek bizilagun guztiok egiten digute kalte: askok sekulako buelta eman behar dute geltoki inguruan, Ipeñarrietako bidegurutzea autoz gainezka izaten da, Areizaga-Kalebarren aspaldi berri beharrekoa zen...".

Hala ere, Valentin Berriotxoak ez du uste, oraingoan, herritarrek ekimena hartzea komeni denik. "Hauteskundeak heltzear dira eta kontuz ibili behar da. Batek komeni ez den zerbait esatea nahikoa da, parekoa erasora pasatzeko. Hauteskundeetan herritarrek gai honen inguruan duten iritzia islatu beharko litzateke, baina memoria txarra dugu. Berehala ahazten dugu guztia. Dena den, bozketen ondoren egoera lasaitu egingo dela uste dut. Hauteskundeak gertu egotea ez da ona izan. Maiatza ondoren alkateek jarrera berarekin jarraituko balute, orduan bai, zer edo zer egin beharko litzateke. Foroak bideratzea ez da erraza, baina udal ordezkariak elkartzera eta hitz egitera bultzatuko dituen mobilizazio puntual bat antolatzea ondo irudituko litzaidake".


Hauteskundeak irabazteak ez duela denetarako eskubidea ematen kontuan izatea nahi du. "Politikoei lau urtetan nahi dutena egiteko joera dute. Baita aurkeztutako programatik kanpoko gauzak ere. Horien guztien inguruan, galdeketa antolatu beharko lirateke".

Pello Gartzandia: “Urretxuarrek zumarragartasunaz hitz egiten dute, baina urretxuertasuna handiagoa dela uste dut”

Pello Gartzandia Eitzagakoa da. Bere garaian Ezpata Dantzaria izan zen eta baita zinegotzia ere, herriaren alde lan egindakoa da beraz. Urretxuarrak estiman ditu eta kezka handiz bizi ditu azkenaldian izan diren hika-mikak.

Bere burua zumarragartzat du. "Gaztetan FLEkoak ginela esaten genuen txantxetan: *Frente de Liberación de Eizagakoak*. Auzoan arazo batzuk zeuden eta Udalari gutaz ahaztuta zegoela leporatzen genion, baina zumarragartzat genuen geure burua".

Ez du uste zumarragartasuna oso indartsua denik. "Urretxukoek zumarragartasunaz hitz egiten dute, baina urretxuertasuna handiagoa dela uste dut. Urretxuar peto gehiago daude zumarragar petoak baino. Hemen ere badaude herriko semeak, baina garai batean baino gutxiago. Sentimendu hori handiagoa da Urretxun". Normala iruditzen zaio. "Bi herri dira eta normala da euren gauzak defenditzea, baina azkenaldian ikusi ditugun gauzek ez dute ez hankarik eta ez bururik", dio kezkatuta. Gaztea zenean bi herriak elkartzeko zorian izan zirela oroitzen du. "Bi alkateek bultzatu zuten, herria kontuan izan gabe. Eztabaida handiak izan ziren. Urretxun izan zen elkartzearen aurkako mugimendu handiena. Herritarrek ez zioten barkatu alkateari halako lanetan has-tea eurak kontuan izan gabe. Nik 20 bat urte nituen eta Madayan lan egiten nuen, ez nuen gertutik jarraitu prozesua. Hautsi zenean, belaunaldi berriek mentalitate irekiagoa izango zutela pentsatu nuen; baina



ez da hala gertatu".

Ez dago balizko fusio baten aurka, baina "oso zaila" ikusten du halakorik ematea. "Pausoak polikiago eman behar dira. Hasteko, bi herrien arteko lankidetzeta bilatu behar da. Orain dagoena baino sakinagoa eta epe luzera begira, ez gai zehatz batzuetan bakarrik. Garai batean Hego Euskal Herriko lau herrialdeak bat izan behar zutela esaten zen eta orain lankidetzeta hitzarmena sinatzeaz hitz egiten da. Herri mailan ere hori kontuan izan beharko genuke. Gauzak ondo joanez gero, belaunaldi berriek bat egitea proposatu dezakete. Nork daki?".

Hitzarmenik ezean, azken urte hauetako gaizkiulertuak errepika daitezkeela uste du. "Gehiago edo gutxiago, bi udalek dute

errua. Barregarri gelditu gara. Kanpokoek zoratuta gaudela pentsatzen dute. Gainera, garai bateko ezinikusiak berpizten ari dira herritarren artean: halako gaie-tan jendeak ez du arrazoitzera jotzen. Egoera desblokeatu behar da".

Horretarako, herritarren parte hartzea ezinbestekoa ikusten du. "Bi herriak, Zumarraga oraindik eta gehiago, lokartuta daude. Ez dago herriaren alde lan egiteko asmo handirik. Alderdiek ere bi alkateen eskutan utzi dute guztia eta inork ez du hau konpontzeko pausorik eman. Orain hauteskundeak izango dira eta ea zer edo zer egiten den. Ezin ditugu beste lau urte pasatu ezer egin gabe", azaldu du.


Gartzandiak nola lan egin beharko litzatekeen ere pentsatu du. "Herri bakoitza bere aldetik bildu beharko litzateke bere beharrak aztertzeko. Ondoren, bien artean behar horiei nola erantzun adostu beharko lukete eta udalei jakinarazi. Oso zaila izango da, baina herritarrek zer edo zer egin behar dute, alderdiak ez baitituz adostasun batera heltzeko prest ikusten". Bera zinegotzia izan zen garaian gauzak bestelakoak izan zirela dio. "Ramon Arbizu eta Jose Julian Irizar ziren alkate eta, alderdi berekoak zirelako-edo, aurre-rapausoak eman ziren. Urretxuarrak pixka bat suminduta daude antzinatik, Zumarragak poliki-poliki lurrak jan dizkiela diote. Horren aurrean, antzinako planoak hartu eta herri bakoitza noraino heltzen den zehaztu genuen. Hori oso positiboa izan zen. Urte askotan harremanak onak izan dira, baina orain...", dio atsekabetuta.

Mila Irizar: "Beti iruditu zait urretxuarrak oso sutsuak direla, bai onerako eta bai txarrerako"

Mila Irizarrek ondo ezagutzen ditu urretxuarren eta zumarragarren arteko garai bateko hika-mikak, Kalebarrenen jaio baitzen eta bertan igaro baitzuen bere haurtzaro eta gaztaroa. Ordutik hona, bi herrietako bizilagunen arteko harremana dezente hobetu dela dio.

Umetan, San Joanak heldu aurretik, tiribarrak izaten zituztela oroitzen du. "Kalebarrenen, hiltegiaren inguruan, San Joan sua egiten genuen. Zume azalak eramaten genituen horretarako eta Urretxutik guri lapurtzera etortzen ziren. Bestelakoan, askotan eztabaidatzen genuen. Mojetara joaten ginen, baita urretxuarrak ere, eta bidean asko eztabaidatzen genuen: batzuen eliza besteena baino politagoa zela... halako gauzak. Azkenean, bakoitza berearekin geldituko zen beti...". Dena den, Kalebarreneko borroken kontua zaharragoa dela dio. "Nik ez nuen halakorik ezagutu, baina gure amak askotan kontatzen zuen harrika ibiltzen zirela. Bera ere bertan jaioa zen".

Frankismoa amaitzearekin, alderdi politikoek ikuspuntu zabalagoa erakutsi zutela, elkarlana bultzatzen hasi zirela eta horrek giroa baretzen lagundu zuela uste du. Lehenago, bi herrien bat-egitearen kontua izan zen. "Beno... horrek giroa gaiztotu zuen. Urretxuarek zumarragarrok lasai asko ikustea ematen zien amorru gehien. Egia esan, Zumarragan ez zuen kezka handirik eragin. Urretxun, euren herria txikiagoa izanik, bereganatuko genituen beldur izango ziren... Batzuekin ezin zen hitz egin eta kezkarik agertzen ez zuten herri-



tarrak traidoretzat zituzten. Beste batzuek ez zuten ondo pasatuko", dio.

Udalek berehala egin zuten atzera. "Filtrazioren bat izan zen eta hor bukatu zen kontua. Oraindik ere nonbaiten *Fusión no. Viva Villarreal* jartzen duela uste dut. Euren izaera galduko zutela usteko zuten... Urretxuarek eurek zutena Zumarragan ez bazegoen, beste inon ez zegoela uste zuten. Zumarragari begira zeuden beti".

Irizarren ustez, urretxuarren eta zumarragarren artean aldea dago. "Beti iruditu zait urretxuarrak oso sutsuak direla, onerako eta txarrerako. Euren herria indar handiz defendatzen dute eta herriaren alde zumarragarrek baino gehiago lan egiten dute, hori egia da. 20 bat urte nituela,

Kalebarreneko festetan, Areizaga plaza eginda zegoela, bertan saskibaloia partida antolatzea pentsatu zen. Udalak ez zuen gaizki ikusi, baina urretxuarrak plaza autoz beteko zutela esaten hasi ziren eta azkenean ez zen bertan partidarik jokatu. Ez zuten nahi Kalebarreneko festak Urretxura pasatzea", oroitzen du.

Zumarragan ez omen litzateke halakorik gertatuko. "Zumarragarrek nahiko hotzak gara, gauzak aurrera eramateko borondate handia behar da eta askotan apur bat falta zaigu beharbada".

Dena den, azkenaldian giroa dezente berotu da bai Zumarragan eta bai Urretxun. "Zer esango dizut bada? Kalebarrenekoa eta geltokikoa ez dago ulertzerik. Aurreko urteetako harreman ona berreskuratu beharko lukete. Gauza asko, bi herrietan egin beharrean, elkarrekin egingo balituzte, hobea. Dena den, elkar ulertzea ez da sekula erraza izaten. Alderdiek zeresan handia dute. Alderdi barruan bi herrietako jendea ados jartzearekin nahikoa da", dio.

Mila Irizar geroz eta gutxiago irtetzen da kalera eta ez daki bizilagunak bere iritzi berekoak diren. "Garai batean gehiago irtetzen nintzen, umeekin ikastolara, katekesira... duela urtebete arte ama zaintzen izan naiz eta irteteko ohitura galdu dut. Dena den, jendearen artean zoratu ote garen sentsazioa nagusi dela uste dut. Ez dakit nork duen errua, baina gertatu dena ez da normala. Zorionez, herritarren artean harremana lehen baino hobea da eta ez da halakorik gertatzen".

Amaia Aranburu: "Senarrak Eitzagakoa dela esaten dut beti, baina oso argi utzi nion ez ginela hara joango"

Amaia Aranburuk ere ez du aurkezpen handirik behar. Izan ere, bi herriotako hainbat ekimenetan parte hartu du eta kultur ekitaldi ugari aurkeztu ditu. Urretxuarra izatez, Gernikako Arbola plazan bizi da senarrarekin eta alabekin.

Ez du uste urretxuarren eta zumarragarren artean alde handirik dagoenik. "Lehenago, beharbada, alde handiagoa egongo zen edo euren herritartasuna indartsuagoa izango zen. Ni, adibidez, urretxuarra naiz eta etxebizitza erostekotan geundenean Urretxun bilatu nuen. Nahiago nuen bertan gelditu. Dena den, pentsatzen hasita, Kalebarrenen bizitza antzerakoa litzateke", dio.

Argi utzi nahi du ez duela bere urretxuartasuna azken muturreraino eramaten. "Dantzan Irrintzi taldean aritu nintzen. Orain bi herrietako taldea da, baina garai hartan Zumarragarekin lotzen zen. Bestalde, Zumarragako Udalak lanen bat egiteko eskatu didanean, inongo arazorik gabe egin dut", azaldu du.

Dena den, urretxuartasuna beste era batera ulertzen duenik ere badela onartzen du. "Nahiko parte hartzailea izan naiz, baina gurasoak ere Urretxukoak dituztenek, beharbada, urretxuartasuna sartuagoa dute oraindik. Nire kasuan, ama Bergarakoa da eta aita Ezkiokoa. Urretxukoa naiz, baina ez dut ezer Zumarragako aurka".

Bi herrietako bizilagunen artean, jaiak bizitzeko moduan nabaritzen du alderik handiena. "Urretxukoak herrikoia izan dira beti. Zumarragak Santa Isabel



eguna dauka, baina Urretxukoak parte hartzaileagoak direla iruditzen zait".

Azken finean nabari zaio nongoa den... Senarra, berriz, Eitzagakoa du. "Berak hangoa dela esaten du beti, baina oso argi utzi nion ez ginela hara joango. Beti herri erdian bizi izan naiz eta, gainera, bere lanbideagatik bakarrik egotea tokatzen zait askotan. Amarengandik gertu egon nahi nuen...".

Bere inguruan gai hau antzera bizi dutela dio. "Gaur egun gazteen artean ez dago gai honen inguruko istilurik. Urretxuko jaietan zumarragarrek parte hartzen dute eta alderantziz, esaterako. Batzuk erradikalagoak izango dira, baina ez zaizkit ondoan tokatu".

Azkenaldiko tirabirek herritarren jarreran

eraginik ez dutela izan dio. "Herritarro berdin zaigu autoak nondik pasatzen diren. Inporta zaiguna trafiko arazorik ez izatea da. Ez dut udalen jardunaren berri, ez dakit tirabirak alkateen artekoak bakarrik diren, baina aurrez hitz eginda gauzak beste modu batera egin daitezke. Pentsa zenbat kostatu den trafiko azterketa eskatzea!".

Elkarkidetza bultzatzearen aldekoa da. "Kanpotik datorrenari herri bakarra iruditzen zaio eta guretzat ere hobea litzateke gauzak elkarrekin egingo bagenu. Azpiegitura hobek lortuko genituzke bi herrientzako. Azken urteotan elkarkidetza indartu egin da, baina urte asko pasatu ziren, esaterako, Santa Lutzia elkarrekin antolatzen hasi aurretik. Amorrua ematen zidan komunikabideetan Zumarraga bakarrik aipatzen zutela ikusteak".

Bi herriak bat egitea ez zaio beharrezkoa iruditzen, baina bai elkarrekin gehiago lan egitea. "Literatur lehiaketek eta Santa Lutziez gain, beste gauza batzuk ere egin beharko liriateke. Zenbait urrats, trafiko azterketarena bezala, lehenago eman beharrekoak ziren. Bi alkate hauek kurrikulum luzea dute, baina herritar arruntek lehenago egingo zuten beharbada", dio.


Bere ingurukoek antzerako sentsazioa omen dute. "*Hauek zertan ari dira?* eta tankerako galderak nagusi dira. Guztion onerako diren gauzetan, biek amore eman beharko lukete. Errotondaren kontua *Pásalo* saioan ere atera zen eta hori nahiko lotsagarria izan zen urretxuar eta zumarragar guztiontzat", amaitu du.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Pepe Gotera eta Otilio



Udal hauteskundearen itzala gero eta handiagoa egiten ari den heinean, buruan bueltaka dabilkigun galdera inozo batek gero eta ozenago astintzen ditu geure neuronak. Alegia, maiatzaren 27ra bitartean nor agertuko da gehiago hedabideetan, Antton Arbulu ala Pello Gonzalez?

Lehia estua izango da, zalantzarik gabe. Guretzat faborito nagusia Arbulu da, orain arte argazki guztietan agertzeko erakutsi duen abilitzade harrigarriagatik. Berdin du zein ekitaldi mota izan. Antton beti hantxe izango da, argazkiaren edo planoaren erdi-erdian. Baina inork ez dezala pentsa Pellok gauzak erraz jarriko dizkionik, haren *dandy* posea erakargarriagoa delako kameraren begietara. Gainera, egoerak ez du sekula menpean hartzen (bere aurpegiera serioak behintzat hori adierazten du), eta horrek emaitza ederrak eman ditzake markagailua defendatu behar denean.

Litekeena da balantza obratan dauden metro karratuek desorekatzea. Edo metro borobilek, herrion arteko harremana errotonden diametroaren arabera neurtzen duenik badagoela aintzat hartzen badugu. Jubilatuen gozamenerako, txoko ugari hankaz gora daude (Zumarragako *Zero Guneak* -Zelai Aristik- artikulu oso baterako emango luke), eta ziur hurrengo egunetan inaugurazioak-eta ugariagotu egingo direla. Horrek ere Arbuluren alde egin dezake. Gu biok Goldeneko pistaren erdian bezain armoniatsu mugitzen da halakoetan Zumarragako alkatea, eta badakigu haren keinu barregarriek hamaika albiste zipriztinduko dituztela. Halakoxea baita gure alkatea, urretxuar batek bota zigun moduan, "gurea bezain alkatea -eufemismo bat erabiltzearen-, baina graziosoagoa". Eta hori, irribarreak hain garesti saltzen diren garaiotan, abantaila da.

Nola bizi duzu urretxuarren eta zumarragarren arteko harremana? Gaiaren inguruko pasadizorik ba al duzu?



Harkaitz Barreros



10 urte nituen arte Zumarragan bizi izan nintzen, baina geroztik Urretxun bizi naiz. Urretxuarra sentitzen naiz, baina bi herriekin identifikatzen naiz. Egia esan, bi herrien artean ez dut alde handirik nabaritzen. Batzuk egongo dira oraindik ere herritartasun sentimendu oso sakona dutenak, baina ez dut uste Koldo zena bezalakorik gelditzen denik.

Puri Agirre




Berez Urdiaingoa naiz, baina 38 urte daramatzat Urretxun. Beraz, urretxuarra ere sentitzen naiz. Ez dut bi herrien eta herritarren artean alderik nabaritzen. Garai batean alde handiagoa egongo zen, beharbada. Pasadizoak ez dira falta behintzat.

Sofi Bereziartu



Zumarragakoa naiz. Herritartasun sentimenduan ez dut uste alderik dagoenik beraien eta gure artean. Pasadizo asko daude, baina aspaldikoak. Herritarren arteko harremana ona da, baina oraindik eta ekimen gehiago atera beharko genituzke aurrera elkarrekin.

Patxi Urtzelai



Zumarragar peto-petoa naiz, hobe herritartasuna zabaldua-
goa egongo balitz. Kar, kar... Herritarren arteko harremana
instituzioen artekoa baino hobea da azkenaldian. Dena den,
garai bateko egoera ezberdina zen eta pasadizo asko daude.
Gazteak, adibidez, harrika ibiltzen ziren. *Fusiorik ez* pintadak
ere gogoratzen ditut.

Gaia: Udaberria

Doinua: Txepetxarena

Jone Alberdi



Guzti-guztia lorez jantzirik heldu da udaberria, kolore polit eta ederrez ikus daiteke herria.


Txoriek ere zuhaitzetatik txorrotxio pozgarria, jendearengan irudi honek sorrarazten du irria, ongi etorri izan zaitea urtaro miresgarria.

Leiho ondotik kanpoaldera jarria nago begira, ekialdetik ikus daiteke eguzki printzez dizdira. Zuhaitzek ere eskaintzen dute sekulako ikusmira, erleak hegan lorarik lore nektar biltzen ari dira, udaberriak alaitasuna ekartzea det desira.

Ezin ukatu begi aurrean paisai ederra dagola, hainbat larrosa, hainbat krabelin, lili eta amapola. Goiko hodei txuriak zeruan, belarretan karakola, sasoi honetan goza nahi nuke aurten hola edo nola, egia esan urtaro honek aldatzen digu odola.

iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua



Negu traidoreari begira

Bagenekien gertatuko zela, baina kalanbre batek zigortzen digu bizkar hezurra jakiten dugunean. Dagoeneko liburuan atera genituen hiru nagusi joan dira. Elkarrizketak egin genituenean, *berriz elkar ikusiko ote dugu?* etortzen zitzaigun burura. Hiru kasu hauetan behintzat ezezkoa izan da.

Heriotza hurbiletik ikusteak gauza garrantzitsuak zeintzuk diren erakusten du. Hain *distraituak* bizi garen garaiotan, ondo legoke behingoagatik zer-baiti benetako arreta jartzea. Ez da heriotza gairik itsusiena. *Blade Runner* pelikulako *replikante* hark galdetzen zuen bezala, *zenbait gelditzen zait?*

Betirako bagina bezala bizi gara. Ez gara konturatzeko zer gauza gutxi garen, zein ahulak, eta bereziki... zein libreak! Beldurrak leihotik botatako-

an, gizon edo emakume bat geldituko zaigu. Garbia, osoa. Heriotza bera ere ez da izango beldurtzeko arrazoia.

Hori ikusten nien zaharrei. Beldurra leihotik bota duenari sosegua besterik ez zaio gelditzen. Badaki udako edozein arratsalde eguzkitsutan ura edaten hasiko dela, eta basoa eskuetatik eroriko zaiola. Ez da biharrik izango. Egina du testamentua eta bere bizitzako momentu eder guztiak ondokoei uzten dizkie. Nik ikusi nuen hori guztia Esperanza, Maria Luisa edo Maria Ascensioekin hitz egin nuenean. Orain joan dira hirurak. Lurra xamurra izan dadila beraiantzako.

*2007ko martxoaren 7an idatzia. Peter Gabriel entzuten eta leihotik negu traidoreari begira.

1910

Urretxuko musika banda

Erdian, Toribio Navarro (zuzendaria). Zutik, ezkerretik eskuinera: Saturnino Agirre, Candido Agirreurreta, Tomas Esnaola, Tomas Ibarzabal, Casiano Esnaola, Felipe Elgarresta, Benigno Ramirez, Gregorio Barbero, Andres Lasa, Esteban Berriotxo, Jose Ignazio Pildain, Pedro Ibañez, Francisco Ugalde, Miguel Argarate, Telesforo Ezkurdia, Hilario Aranburu. Eserita: Martin Iglesias, Teodoro Esnaola, Jose Fermin Esnaola, Manuel Alberdi, Balbino Ugalde, Francisco Ugalde eta Felix Etxeberria.



EUSKALZALAN



Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.

-Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...

-Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.

-Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:

Zintzo-Mintzo elkarte

Labeaga 12, behega (Goierri elkartearen ondoan)

20700 Urretxu

-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:

zm@euskalnet.net

	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84


Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz



☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga



Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52




Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista
Iparragirre, 1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com



arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57



ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28
URRETXU




TABERNA
Guretu
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA



BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13




belardenda
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



BIONA
AROSZTEGIA
Altzariak neurriro
☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



ALEX-KIBOLAK
alejandro albisua
☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



AUZO LAGUN KOOP.
Zumarragako ospitalerako ondorengo pertsonala behar da:
SUKALDARI NAGUSI 1, Ref: SN1
SUKALDARI 1, Ref: S1
3 KAMARERA, Ref: KAM1
Kurrikulumak: rrhh.urb@auzolagun.com

klik eta klik



FAGOR SUKALDE

▼
Ale honetan neguko lehen elurtean ateratako argazkiak ikus ditzakezue.


Jose Luis Garmendia



NIN ste NIN




**SUKALDE
ERAKUSKETA**



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE



Patxi Gallego

Pololoak II - Poxpoliñaren bahiketa

Ez dago komikizale amorratua izan beharrik Patxi Gallegoren *Pololoak I* irakurri eta *Pololoak II* liburudendetako erakusleihoetan azaldu orduko erosteko. Egileak aurkezpen egunean esan zuen: "Zenbait euskal topikoren inguruan irribarre ironiko bat egiten saiatu naiz". Ez saiatu bakarrik, baita lortu ere! Baina berritzailea dena euskal mundua tratatzeko modua da. Eta ez euskal mundua vasco zentzuan (hori ederki egiten dute

Vaya semanita!-koek), euskararen mundua zentzuan baizik. Euskal gizartearen analisi gordina egiten du Xabinaitor protagonistak homeopataren kontsultan bere neura guztiak plazaratzen dituen unetik aurrera. Bestalde, obrako une askotan istorioari musika jartzen dio Patxik. Egileak trilogia hitza aipatu zuenez, hirugarren ale hori datorrenean ere ongietorria egingo diogu.

Oihane Zabaleta

Keu

Heltzear diren egunak

"Koloreentzako lekurik ez dagoenean" esaten zuen Keu-k Fignuh Hystreld (Autoekoizpena, 2005) diskako kanta batean. Baina Jesus Mari Agirretxea Keu-ren (edo UEK, Etsaiak-eko gitarra jotzailea) lanean zerbait badago, koloreak dira. 2000. urtean kaleratu zuen bere aurreneko lana (UEK, Hotsak). Rocka oinarrian zuen diska instrumentala osatu zuen, ukitu jazy eta zertzelada flamenkoekin. Ganbaratik (2003,

Hotsak) lanean, berriz, base programatuak, hip-hop eta progresioak nahastu zituen. Eta Fignuh Hystrelden ondoren, power hiru-kote bortitza eta dotorea osatu zuen iaz (Heltzear diren egunak, Hotsak), Mikel Arakistain (baxua: Etsaiak eta Fjord) eta Jon Gurrutxaga (bateria: Arima Beltza) lagunekin. Zuzenean hazi egiten dira. Ezkutuan distira egiten duen harribitxia da Keu.

Igor Susaeta



Alejandro Jodorowsky

El topo

Alejandro Jodorowsky, bikaina batzuentzat, kontakatilua eta zaratatsua besteentzat, zinera itzultzeko prest dago. 15 urte joan dira azken filma egin zuenetik eta 1970an errodatu zuen *El topo* miresgarriaren jarraipena egitekotan da. Gidoia prest du, baita pertsonaia nagusientzako aktoreak ere: Marilyn Manson eta Johnny Depp. Arazoa dirua lortzea da. Burua produkzio industria-lean duten ekoizleek ezin dute hau bezain

lan bitxi batentzako dirua aurreratu eta ahaztezina izango litzatekeen lan bat ikusteko geratu daiteke. Gugana heltzen ez bada, aurrez egindako filmeekin gozatu besterik ez dugu. *El topo* bera eta *La montaña sagrada* dira esanguratsuenak. Ez daude DVD-an editatuta arazo legalak direla eta. Eskerrak, Jodorowskyk piratei eginiko deiari esker, Interneten aurkitu ditzakegula.

ButaK 21 zineklub taldea

Julia Lizarralde: Emakume borrokalariaren eredu

Julia Lizarraldek jaso du emakumearen egunaren inguruan ematen den Xera saria. Gurasoek Sobietar Batasunera bidali zuten 1936an gerratik salbu jartzeko. 1990an itzuli zen, beste gatazka batetik ihesi. Haurtzaroa gurasorik gabe pasatu, Bigarren Mundu Gerra pairatu, historian doktoregoa lortu eta komunismoa ezagutu zuen. Egun gizarte kapitalista batean bizi da. XX. mendea ondo ezagutu, gozatu eta pairatu duen emakumea da.



Julia Lizarralde bere etxeko balkoian, Busca Isusi kalean.

Gerra garaian Euskal Herritik bidalita-ko haurretako bat zara.

3.000 inguru izan ginen, baina 100 bat besterik ez gara geratzen. Bost urte nituen bidali nindutenean, bi anaia-arrebe-kin batera. Aitak Santanderrera eraman gintuela oroitzen dut. Itsasontzian zapata bat galdu nuela ere bai.

Nola hartu zintuzteten?

San Petersburgora eraman gintuzten, garai hartan Leningrado, eta handik Moskura bidali ninduten. Anaia-arrebe-gandik bananduta bizi nintzen. Oso ondo hartu gintuzten eta onena ematen ziguten. Aktore, zientifiko, esploratzaile... onenengana eramaten gintuzten. Hori guztia Bigarren Mundu Gerrarekin bukatu zen. Duela gutxi umetan euskaraz nekiela jakin dut eta orduan ulertu dut zergatik sufritu nuen horrenbeste Sobietar Batasunean egon nintzen lehen urteetan: ez nuen neure burua ulertarazterik. Hori dela eta, oso lotsatia nintzen. Haurren etxea kartzela izan zen niretzat, haurrak oso krudelak baitira ahulezia erakusten dutenekin.

Nork ematen zizkizuen eskolak?

Hezitzaileak espainiarrak ziren. Kolonia espainiarra modukoa zen gure bizitokia. Espainiako historia kontatzen ziguten, Espainiako dantzak irakatsi... Euskal Herriaz deus ere ez, ez baitzegoen hezitzaile euskaldunik. Dena gazteleraz egiten genuen, errusiera haurrentzako etxetik irten ondoren hobetu genuen.

Zuen pribilegioak Bigarren Mundu Gerra heltzearekin bukatu zirela esan duzu. Nola bizi izan zenuen guda?

Alemaniarrek ziztu bizian egin zuten aurrera eta Moskura berehala heldu ziren. Bonbardaketak hasi ziren eta handik atera gintuzten. Gernika hondamendia izan

zen, baina Sobietar Batasunean bizi izan zutena askoz ere latzagoa izan zen. Merkantzia itsasontzietan, Volga ibaian barrena, Stalingradora eraman gintuzten: gerra guztietan toki estrategikoa izan den tokira. Bidaiak hilabete iraun zuen eta bonbardaketak etengabeak izan ziren. Stalingrado sutan zela atera gintuzten bertatik eta Siberiara eraman gintuzten. Bidean, bonbardaketa gehiago. Noizean

“Erbesteratuak topatzea

eta laguntzea tokatu

zitzaidan. Bidaiak

gogorak ziren, baina oso

lan interesgarria zen”

behin ibaian garbitzeko gelditzen ginen. Tuntuna nintzen: gainontzekoak ur azpian ezkututzen ziren hegazkinak guri tiro egiten hasten zirenean, baina nik buruan baldea jarri eta ibai ertzetik korrika egiten nuen. Anaia izan zen uretara bota nindue-na. Gogorra izan zen, baina gazteak ginen eta une onak ere pasatu genituen.

Zer egin zenuen gerra bukatu ostean?

Haur errepublikarren kontua modaz pasatu zen eta lan egitera bidali gintuzten. Hainbat ikastaro eskaini zizkiguten: doitzaille eta ehule lanak irakatsi zizkiguten, telefonia eta irratia ikasi nuen... Egokitutako ukuilu batean 50 haur bizi ginen eta hiru txandatan egiten genuen lan. Lagun batek eta biok ikasten jarraitzea erabaki genuen eta lanetik irten ondoren eskolara joaten ginen. Anaia-arrebak unibertsitatean zeuden eta guk

ere hara joan nahi genuen. Zaila zen, jateko lan egin beharra baikenuen.

Unibertsitatera heltzea lortu zenuen.

Historia eta filologia ikasi nituen. Ikasketak doan ziren, baina gero gobernuak egokiago ikusten zuen tokira joan behar zen. Stalingradora bidali ninduten, museo batera. Krushev zen lehendakari eta Stalinek fusilatutako eta erbesteratutakoen zerrenda argitaratu egin zuen. Stalinek jende asko desertura, Siberiara, Pamirrera... bidali zuen. Berogailurik gabe, urik gabe, ezer gabe... bizi ziren bertan eta euren bila joan beharra zegoen. Jeneralen emazteek, gobernuko buruzagien alabek... ezagupenik izan ez arren, lanik erosoan zituzten. Niri desterratuak topatzea eta laguntzea tokatu zitzaidan. Bidaiak oso gogorak ziren, gurdian, gameluan... joaten nintzen; baina oso lan interesgarria izan zen. Pamirreko korta batean aurkitu nuen bat, bertan bizi zen. Sekulako atsekabea sentitzen nuen halako zer edo zer ikusten nuen bakoitzean: zientifikoak, komite zentralako kide ohiak, artistak... gizartearen gaina eta lorea ziren! Baliotsuenak! Torturatuak eta muturreraino umiliatuak izan ondoren ere, euren ideologiari eutsi zioten. Beraien aurrean belaunikatzeko gogoia ematen zidan. Euren inguruko informazioa komite zentralaren artxibo sekretuetan eta iraultzaren museoan lortzen nuen. Oso nekagarria zen egia lortzea. Stalinenganako kultuari buelta emateko saiakera izan zen. Hamar urte eman nituen: 1958tik 1968ra.

Zer egin zenuen ondoren?

Bakura bidali ninduten, Azerbaijanera. Kubatarrek petrolioa aurkitu zuten eta kubatar asko Bakura joan ziren, petrolioaren hiriburura, ikastera. Itzultzaile lanak

Julia Lizarralde, goiko ilaran ezkerretik zazpigarrena, Stalinen irudiaren aurrean, unibertsitateko kideekin.



egiten nituen eta errusiera irakasten nien. 1990 arte bizi izan nintzen Bakun.

Bi anaia-arrebekin bidali zintuztela esan duzu. Zer gertatu zen beraiekin?

Nagusiagoak ziren. Ahizpa goseak jota hil zen Bigarren Mundu Gerran eta anaiak medikuntza ikasi zuen. Moskun bizi da.

Zer datorkio burura bere gurasoengandik hain urrun bizi den neska bati?

1948an jaso nuen lehenengoz nire gurasoen gutun bat. Aitak hango Gurutze Gorriari bidali zion eta honek Alderdi Komunistaren komite zentralari, Dolores Ibarruriri, helarazi zion. Elkarri idazteari ekin genion. Aita kartzelan zegoen beti. Hemen bizi izan ziren anaia-arrebek kontatu didatenez, Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean, manta hartu eta inortxok ezer esan gabe kartzelara joaten zen. Bazekien bere bila etorriko zirela... Komunista zen eta Errepublikaren arma komisaria izan zen Zumarragan. Bere ideiak zituen eta garesti ordaindu zuen, baina are garestiago guk.

Aita bizirik atera izana harritzekoa da.

Esteban Orbegozoren konfiantzako gizo-

na zen eta lantegiko prozesua primeran ezagutzen zuen. Kartzelara eramaten zuten bakoitzean, lana eramaten zioten Orbegozoren partetik. Horregatik ez zuten fusilatu. Eibarkoa zen, armagintza eskolan ikasi zuen. Zumarragara etorri zen lanera eta bertan nire ama zena ezagutu zuen. Federico Lizarralde eta Josefa Beldarrain zuten izena.

Heldua zinela, beraiekin egoteko paradarik izan al zenuen?

Sobietar Batasunetik etortzea oso zaila zen, baina nire egoera ekonomikoa ona zen eta sei bat aldiz etorri nintzen. Lehenengoetan, nire gurasoak bizirik zeuden. Gerra garaian kanpora bidalitako haur asko 1957an itzuli ziren behin-betiko, baina Espainiako gobernuak gutun bat bidali zidan eta bertan nire anaia-arrebei eta niri itzultzea debekatzen zitzaigun. Gordeta dut, amak ezin baitzuen sinetsi. 1968an etorri nintzen lehenengoz.

Deskriba al daiteke gurasoak ikustean sentitu zenuen emozioa?

Zaharragoa zen emakume bat nirekin etorri zen eta, heldu zenean, lurra musuka-

tzen hasi zen negarrez. Zer zen hura! Lurra eskutan hartu eta aurpegira botatzen zuen, berea zela adierazi nahiko balu bezala. Niri dagokidanez, berehala ezagutu nituen gurasoak. Antza handia genuen. Aita aparte zegoen, lotsatia baitzen. Ez zuen ezer kontatzen. Jakin mina nuela esaten nion, Espainiako Alderdi Komunistaren historia goitik behera ezagutzen nuela, baina historia pertsonek egiten dutela eta hitz egin behar zuela. Hemendik Eibarrera eraman ninduen, bere garaian ezkutatu zuten baserrietara. Jendeak asko maite zuen eta gizon osoa zela esan zidaten. Antonio Pradak aitaren aurkako jazarpenaren arrazoiak bilatu zituen eta arma komisarioa izan zela aurkitu zuen. Amak, aitak ihes egin zuenetako batean, falangistak bere bila etorri eta ezkontzako argazkia metrailatu zutela esan zidan.

Ezkondu eta bi seme izan zenituen. Zergatik itzuli zinen behin-betiko?

1989an azerbaijandarren eta armeniarren arteko gatazka hasi zen. XX. mende hasieran Turkiatik ihes egin zuten armeniarrek muga pasa zuten eta Azerbaijango eskualderik aberatsenera sartu ziren. Sobietar Batasunak gelditzen utzi zien, baina denborarekin bertako nagusiak sentitu ziren. Armeniarrak pikaroak dira eta azerbaijandarrak, berriz, abegitsuak eta astakiloak. Armenia pobrea da eta Azerbaijango zatia gozokia da. Gatazka armeniarrek hasi zuten eta azerbaijandarrak hil ala bizi defendatu ziren: Bakun, azerbaijandarrez hitz egiten ez zuena, armeniarzat hartzen zen. Euren hizkuntzan espresatzeko gai nintzen, baina atxilotu egin ninduten. Bizilagun bat atera zen nire alde. Espainiako enbaxadak horren

berri izan zuen eta handik atera ninduen, nire seme gazteenarekin. Fidelek ere kubatarrak handik atera zituen. Izan ere, bidegabekerien biktimen alde egiteko joera zuten eta arrisku larrian zeuden.

Nolakoa izan zen itzulera?

Ez zen erraza izan. Moskura eraman gintuzten, baina hoteletan ez zituzten Kaukasotik zetozenak nahi: guztiak terroristatzat gintuzten. Bi aste eman genituen eserlekuetan lo egiten. Hori guztia bizi ostean, Barajasera heltzea eta zorabiatzea dena bat izan zen. Angela Rodicio kazetaria nire zain zegoen elkarrizketa

“1974 arte gutxi gora behera, sobietarren sistema hau baino hobea zen. Gero ustelkeria izugarri hazi zen”

egiteko, baina ez zidan lagundu. Dokumentuak, dirua eta bitxiak lapurtu zizkidaten. Sekulako ezintasuna sentitu nuen: ez nuen inor ezagutzen, ez nekien nora jo... ez nintzen inor. Senarra eta seme nagusia 1992an etorri ziren.

Urretxu-Zumarragan harrera hobea izango zenuen...

Harrera oso beroa eta abegitsua egin zidaten. Ez dut hori eskertzeko hitzik.

Zer alde nabaritu zenituen Sobietar Batasunetik Euskal Herrira?

Ekonomikoki, jendea hemen hobeto dago. Hango egoera oso txarra zen garai hartan: ustelkeria toki guztietara heltzen zen eta hori salatzen saiatzen zena kar-

tzelara eramaten zuten. Dena den, 1974 arte gutxi gora behera, sobietarren sistema hau baino askoz ere hobea zen. Legeak hiritarrak babesten zituen. Gero, ustelkeria izugarri hazi zen. Alderdiko jendeak esklaboak zituen Asia zentralko bere lantegietan lanean, esaterako.

Zeintzuk ziren hango abantailak?

Langilea esplotatuta zegoen eta ekoizten zuenaren %14 soilik jasotzen zuen. Estatu Batuetan %50 jasotzen zuen. Iza dena gobernuarentzat zen, baina askatasun handiagoz bizi ginen: jendearen artean giro hobea zegoen; umilagoak ginen; denbora hobeto pasatzen genuen; kulturean, hezkuntzan eta osasunean asko inbertitzen zen... Azkeneko horiek doan ziren. Inor ez zen gosez hiltzen eta ez zegoen eskalerik. Mundu guztiak zuen bizitzeko toki bat. Dena denontzat egiten genuen eta guztiok geunden ekonomikoki ahul samar. Kontsumismorik ez zegoen, ez baitzegoen zerekin kontsumitu. Inbidiarik ere ez zegoen. Artea gustuko dut eta astero antzerkira eta museoetara joaten nintzen. Liburutegiak bikainak ziren, zoologikoak, planetarioak... gizakiak garapenerako behar duen guztia genuen.

Zer moduz moldatu zara hemen?

Sobietar Batasunean eman nituen azken urteak txarrak izan zirenez, hemen lasaia-

go bizi naiz. Semeak ondo moldatu dira, baina senarrak ez zuen lortu. Jubilatuta nengoen jada etorri nintzenean. Itzulpen lan batzuk egin ditut, hango haurrak adoptatu dituzten familiak lagundu ditut...

XX. mendeko gertaera garrantzitsuenak bertatik bertara bizi izan dituzu.

Bigarren Mundu Gerrak Sobietar Batasuna suntsitu zuen. 30 milioi herritar hil ziren, dena txikitu zuten... Zeretik hasi behar izan zen. Juduen sarraskiaz hitz egiten dutenean, sutan jartzen naiz. Juduak munduko populazioaren zati txiki bat dira! Gudan Sobietar Batasuneko 110 nazionalitatetako lagunek parte hartu zuen eta guztiok pairatu zituzten hilketak eta kontzentrazio esparruak. Argi... nire lagun guztiak juduak ziren, e! Arrazoia ematen didate, baina Alemanian bizi dira eta sekulako pentsioak dituzte. Saltzen dakite. Guztiok kendu digutena itzultzeko eskatzen badugu, nork ordainduko du?

...

Estatubatuarrak Bigarren Mundu Gerraz hitz egiten dutenean, barre egiten dut. Nik guda hura bizi izan nuen... Kontatzen dutena ipuina da, fikzioa. Estatu Batuak gerran sartu zenerako, Sobietar Batasuneko mugak zabalik zeuden. Nola faltsifikatu daiteke hala historia? Gerra sobietarrek irabazi zuten.




lazko iraillean, Sobietar Batasunera bidaliak izan ziren gainontzekoekin batera, Ibarretxe lehendakariaren ondoan, azken honek Ajuria Enean eskaini zien harreran.

www.otamotz.com: hemen da herritarren web gunea

Internetek geroz eta toki garrantzitsuagoa du gizartean eta gutxi dira dagoeneko bere eraginetik kanpo gelditzen direnak. Hala, egunean egon eta aurrera egin nahi duen talde eta enpresa orok sarean bere tokia behar du. Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak ere aspaldi ikusi zuen hori. Hilabete luzeetako lanari esker, mundu guztiko biztanleak otamotz.com web orrian sartu daitezke jada.

Andoni Berriotxoa eta Josu Aztiria, web orria erakusten.





Zintzo-Mintzok urtebete darama egitasmo honetan buru-belarri lanean. Josu Aztiria lehendakariak azaldu du proiektuaren sorrera. "Internetek aukera itzelak eskaintzen ditu, are gehiago gurea bezalako kultur taldeentzat: komunikabide berria sor dezakegu, inbertsio handia egiteko beharrik gabe", dio.

Otamotz.com-en zutabeak hiru dira. "FitBak enpresa aholkularitza teknikoaz arduratzen da eta Andoni Berriotxoa editorea da. Profesionalen presentzia ezinbestekoa da egitasmoa aurrera ateratzeko eta finkatzeko. Bestalde, urretxuarren eta zumarragarren partehartzea ezinbestekoa da: beraiek dira, hein handi batean, web orriari edukia emango diotenak".

Andoni Berriotxoa urretxuarrak egingo ditu bizilagunen eta web orriaren arteko zubi lanak. Dagoeneko bi herriotako elkarte gehienetako ordezkariekin elkartu da, proiektuaren nondik norakoak azaldu dizkie eta parte hartzera gonbidatu ditu. Gehienak sortzen duten informazioa Berriotxoari helarazteko prest agertu dira. Hala, komunitate birtualaren partaide izango dira.

Ez da harritzekoa, beraz, Berriotxoa pozik

egotea. "Elkarte gehienek oso ondo erantzun dute. Batzuk berehala hasi ziren informazioa bidaltzen, oraindik probatan geunden arren. Bestalde, bizilagun batzuek behin-behineko helbidearen berri izan dute eta orrian sartu dira", azaldu du.

"Herritarren parte hartzea ezinbestekoa da: beraiek dira, hein handi batean, web orriari edukia emango diotenak"

Editorea gogotsu mintzo da bere betebeharrak. "Urretxu eta Zumarragako bizilagunei zerbitzua eskaini behar diegu. Horretarako, eurek albiste iruditzen zaien oro bidaltzea eta berri horiei buruz eztabaidatzea behar dugu. Formatu oro onartzen dugu: testuak, argazkiak, bideoak... Herritarrek izango dira web orriari bizia emango diotenak. Horretarako, ez da informatiko ezagutza handirik behar: erre-

gistratzearekin nahikoa izango da".


Berriotxoak atariaren edukia apur bat gehiago zehaztu du, bere atalak azalduz. "Herrian antolatzen diren kultur jarduerak guztiak aurkitu daitezke, agenda guztiak zentralizatzeari arduratzen baikara. Gainera, albisteak, multimedia atala, telefono eta merkataritza gida osoa... daude. Horretaz gain, bizilagunei euren bloga sortzeko aukera eskaintzen diegu eta Otamotz atal guztiak kontsultatzeko aukera ematen dugu", laburtu du.

Egitasmo handia denez, gogor lan egin behar izan da. "Beste herri batzuetako ereduetan oinarritu gara. Edukiari dagokionez, gure erreferentzia Azpeitiko Uztarria izan da. Bestalde, Elgoibarren elkarteok eta guk programa bera erabiltzen dugu", dio Berriotxoak.

Bukatzeko, herritarrek web orrian sartzera animatu nahi ditu. "Oso erakargarria da eta baita Euskal Herria mailan herritarren partaidetzari garrantzia gehien ematen diotenetako bat. Urretxuarrak eta zumarragarrik otamotz.com atarian sartzera eta parte hartzera animatu nahi ditut, oso dinamikoa baita: egunero berrikuntzak aurkitu daitezke", amaitu du.

Txirrindularitza familia giroan

Gero eta gutxiago dira txirrindularitzan aritzen diren gazteak. Euskal Herriak txirrindulari harrobi bikaina izan du beti, baina etorkizunak ez du itxura onik. Egoera latz honetan, aipatzekoa da De Miguel sendiaren ekarpena: Jesus aita Goierri-Hiercor taldearen zuzendaria da eta Unai semea bere aginduetara lehiatzen da.



Unai eta Jesus de Miguel, Zintzo-Mintzo elkartearen egoitzan.

Goierrik lau mutiko besterik ez ditu: hiru jubenil mailako Hiercor taldean eta beste bat txirrindularitza eskolan. Guztien buru Jesus de Miguel da, duela 20 bat urte Goierri elkartean lanean hasi zen zaletua. "Duela hiru urtetik naiz txirrindularitza sailleko delegatua, baina ordurako lau urte neramatzan mutikoekin lanean. Lehenago ere, sei bat urtetan, lasterketa guztietara joan nintzen gazteekin", dio.

De Miguel txirripaz sartu zen mundu honetan. "Koadrilakoen anaiak txirrindulariak ziren, nire lagunak haiekin joaten ziren eta ni laguntzen hasi nintzaian. Lehen zaletasuna zen eta orain, berriz, obligazioa. Izan ere, nire semea txirrindularia da". Ez omen da lan samurra. "Lotua da, astebururo baitaude lasterketak. Gainera, lizentzien kontua eraman behar da, mutikoen materiala zaindu, lasterketak jarraitu...".

Urte hauetan guztietan zuzendarien lana asko aldatu dela dio. "Orain autoetan irratia dugu eta une oro dakigu proba nola doan. Materiala ere asko hobetu da: egungo bizikleten eta garai batekoen artean sekulako aldea dago", azaldu du.

Zoritxarrez guztiak ez du hobera egin. Aipatu bezala, egun garai batean baino askoz ere txirrindulari gutxiago daude. "Lehen kadeteak bi mailatan banatuak zeuden eta jubenilak ere bai. Horietako bakoitzean 100 lagun baino gehiago aritzen ziren. Egun, ordea, mutikoak falta dira. Goierri bertan, kadete mailako bi talde eta jubenil mailako beste bi genituen. Txirrindularitza eskolan, berriz, nahi adina mutiko genituen. Gaur egun, berriz, kadete mailan ez dugu inor eta jubenil mailan hiru besterik ez. Txirrindularitza eskolan mutiko bat besterik ez dugu, azken lau urteotan izena eman duen

bakarra", dio atsekabez.

De Miguelek arazo honen arrazoiak azaldu ditu. "Kiroldegian edo futbol zelaian aritzea errepidera irtetea baino segurua da eta praktikoagoa da. Klub guztietan antzera gabiltza eta ez zait beste arrazoirik bururatzen. Zer egingo diogu ba... gazteak ezin ditugu etortzera behartu. Federazioak bizikletak uzten dizkigu, hasiberrientzat: lehen ez genien bizikletarik eskaintzen eta barra-barra etortzen ziren". Zorionez, laguntza ekonomikoa badute behintzat. "Hiercor enpresak taldea

*"Lasterketak jarraitzen
ditut eta erorketaren bat
dagoen bakoitzean
autotik salto egiten dut"*
(Jesus de Miguel)

babesten du. Bestalde, 30 gutun baino gehiago bidali ditut enpresetara eta gehienak gure lasterketak diruz laguntzeko prest agertu dira. Udalen laguntza ere azpimarratu behar da, hori gabe ez genuke ezer egiterik", aitortzen du.


Dirulaguntzen eta bolondresen lanari esker, txirrindularitzan jardun nahi duten gazteek ia astebururo lasterketak dituzte. "Denboraldia otsailean hasten dugu eta urrian bukatu. Aste askotan larunbatetan eta igandetan daude probak. Dena den, Ertzaintzak eta epaileek lasterketak. Mutikoak atzean gelditu bezain pronto eliminatzen dituzte. Hala, ez da harrizkeoa mutikoek txirrindularitzan aritzeko gero eta gogo gutxiago izatea", dio.

Bere seme Unaik arrazoia ematen dio: "eliminatua izatea etsigarria da". 17 urte ditu eta 10 besterik ez zituenean hasi zen. "Zazpigarren denboraldia dut. Egun osoa bizikletan gora eta behera ematen nuen eta txirrindularitza eskolan izena ematea erabaki nuen. Gurasoak konbentzitu behar izan nituen", azaldu du.

Txirrindulari artean ibilitako Jesus de Miguelek bere semeari kirol horretan aritzen ez uztea harrigarria da. "Txirrindulariekin alde batetik bestera ibilitakoa nintzen eta nekatuta nengoen. Ez nuen berriro hasteko gogo handirik, baina oraingoan ere gustura nabil". Dena den, gainontzeko gurasoek bezala, beldur apur bat pasatzen du. "Nola ibiltzen diren ikusten ez bada, ez da ezer gertatzen. Nik, ordea, lasterketak gertutik jarraitzen ditut eta erorketaren bat dagoen bakoitzean autotik salto egiten dut".

Dena den, Unai beteranoa da jada eta bizikleta menperatzen du. "Lehen urtean nahiko ondo aritu nintzen. Hamar lasterketatan parte hartu nuen eta zazpitan laugarren sailkatu nintzen. Kadetetan kontua zaildu egin zen eta jubeniletan zer esanik ez. Bigarren urtea dut jubeniletan".

Txirrindularitza izugarri gustuko du. "Inguru honetan antolatzen diren amateur eta profesional mailako lasterketa guztiak ikustera joaten naiz. Ahal dudan bitartean jarraitu egingo dut, baina datorren urtean afizionatu mailara pasatu beharko nuke eta oso zaila ikusten dut. Ordekan ondo nabil, baina aldapetan... Entrenatzeari dagokionez, ez zait batere gogorra egiten. Eskolatik irtendakoan, bazkaldu eta entrenatzera joaten naiz. 80 bat kilometro egiten dut irteten naizen bakoitzean", azaldu du.



Alex Areizaga

Informatika

Bilaketak

Askotan zailtasunak ditugu ordenagailuan artxibo, lan edo argazki bat aurkitzeko. Horregatik, sistema eragile guztiek ematen dute ordenagailuan dagoen edozer aurkitzeko aukera. Windows sistema erabilienez, honen bilatzailea ikusiko dugu. **Inicio** edo **hasi** botoia sakatu eta irekiko zaigun koadroan **buscar** edo **bilatu** aukera sakatu. Irekiko zaigun koadroan, bilaketa burutzeko zehaztasunak ezarri ahal izango ditugu, baina ohikoena **todos los archivos y carpetas** edo **fitxategi edo karpeta guztiak** aukeratzea da, bilaketa orokorra aurrera eramateko. Ondoren, bilatu nahi dugun artxiboaren izena edo izenaren zati bat idatzi, eta **buscar** edo **bilatu** botoia sakatu. Zerrenda bat agertuko zaigu, ordenagailuan izen hori duten artxibo guztiekin, eta tartean guk aurkitu nahi duguna egongo da.



Oihane Sudupe

Osasuna

Elikagai probiotikoak

Elikagai probiotikoez (jogurta, esne gatzatua) osasungarriak diren mikroorganismo biziak eskeintzen dizkigute. Beraien helburua hesteetara iristea da, non mikroorganismo patogenoetatik babestu, hesteetako mugimendua hobetu eta bertako immunitate sistema garatzen duen flora garrantzitsua dugun. Probiotikoen helburua berezko ditugun mikroorganismoei laguntzea da. Izan ere, zenbait egoeratan (elikadura desegokia, antibiotikoak) kaltetu daitezke. *Laguntzera* doazen mikroorganismo hauentzat ez da erraza indartsu iristea, bidean hainbat eraso jasaten baitituzte eta gehienak inaktibaturik heltzen baitira. Sektore honen inguruko industrietan azken hau ez digute aipatzen. *Lactobacillus bifidus*-ak (Bio) direla, *Lactobacillus casei*-ak direla... Heste floran eta immunitate sisteman eragin onuragarriak izan ditzaketela frogatu den arren, egun ez da aurkitu miragarria den mikroorganismo hori. Hortaz, osasuntsu egoteko elikagai hauek hartzea ezinbestekoa den ideia aldatu eta zenbait egoeraren aurrean onuragarriak izan daitezkeela jakin behar dugu.

Lur azpian

Iratzargailuak jo zuen goizero bezala, ordu berean. Ahal izan balu, ohe pareko armairuaren kontra botako zukeen, baina zertarako? Ez al zuen behar dirua bizitzeko? Nahiz eta goizero gauza bera pentsatu, erloju zaratatsua mahai txikiaren gainean utzi zuen, lanpararen eta "Soinujolearen semea" liburuaren aurrean. Egunen batean liburu hura bukatu beharko zuela gogoratu zen. Logelatik atera eta, pijama kendu gabe, sukaldera joan zen gosaltzeko gogo handiarekin. Erloju batek zazpiak bost gutxi markatzen zituen, beste batek hamar gutxi. Bi magdalena hartu eta mahaira eraman zituen tearekin batera. Kortinak ireki zituen betiko paisaia eta egoera ikusteko. Autobideko garraio arazoak, lantegiko tximinitik ateratako kea, bizilagunaren txakurra etxetik ihes egiten eta pixkanaka-pixkanaka auzoa nola hutsik geratzen zen gaua arte. Telebista piztu zuen ea berriren bat zegoen, baina ez, berririk gabe geratu zen goiz hartan; Irak, Bush, Ibex 35aren beheraldia, Euroaren garapena, petrolioaren prezio igoera, egunero berdin. Azken magdalena zatia irentsi eta tearekin bukatu zuen. Gortinak itxi eta telebista itzalitakoan, logelara joan zen arropak jaztera eta ohea egitera. Zapatak ondo lotu, aurpegia garbitu, atea ireki eta lanera. Igogailuan betiko emakumearekin egin zuen topo, han beti bezala txakurraren bila zihoan. Andre gizajoak ez zekien zer egin txakurrak alde ez egiteko, dirudenez, animalia madarikatuak leihotik behera egiten zuen salto ordu berean, frutaren kamioia iristerakoan. Zorionez, emakumea eta bere deabrua lehenengo solairuan bizi ziren. Ez zuen ulertzen ez andrearen ez txakurraren jarrera. Batak egunero leihotik behera salto egiteagatik eta besteak lehenengo pisuan igogailua deitzeagatik. Egunero "O" botoiari eman eta egunero lehenengo solairuan gelditu. Emakumea lehenbailehen agurtu eta kalera atera zen eguneroko trena hartzeko asmoz. Metroko geltokira iritsi zen; betiko egoera. Ehun eta zazpi eskalo, bost minutu eta hogeita-bost segundu trenaren zain, hamasei minutu eta erdi betiko eserlekuan jende bera behatzen, eta azkenean "tin!!!", jaisteko momentua iritsi zitzaion. Beste laurogei eskalo, i go eta hiriko enpa-



rantza nagusian zegoen. Orain bi kale ezkerretara, eskuintara okertu eta lau minutu ibili beharko zuen Karmakros liburudendara iristeko. Giltzak atera, atea ireki eta argiak piztu zituen. Berriro ere erori zitzaion buru gainera National Geographic-eko faszikulu bat atea itxi zuenean. Erlojura begiratu zuen: zortziak hiru gutxi. Termometroak 21°C markatzen zuen dagoeneko denda barruan. Zortziak eta hamarretan lehenengo bezeroa iritsi zen, betikoa. Egunkaria eman eta dirua jaso zuen. Ez al zuen noizbait zer edo zer ezberdina erosi behar? Hamahiru bezero eta bi txakur ordu batak arte. "Soinujolearen semea" eramango zuen goiza aspergarriagoa ez izateko.

Jon Cadierno Gutiérrez

Ipuin hau 2006ko Urruzuno sarian saritua izan zen.

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Gorka Erostarbe

Erostarbek ikastolan eta lizeoan egin zituen ikasketak. Ondoren, Leioara joan zen kazetaritza ikastera. Fakultateaz oroitzen txarra duela dio: "gutxi joaten nintzen, kafetegiko tertuliek aspertu egiten ninduten eta patata tortila oso txarra zen. Ikaskide pisuko oroitzenak, berriz, oso onak dira". Arrasate Irratian lan egin zuen eta 1999an Euskaldunon Egunkarian hasi zen. "Dirua banu, kazetari-tza utzi eta mendira joango nintzateke, bordatxo batean bizitzera", aipatu du. Bertso eskolaren hastapenetako ikaslea izan zen eta herriko bertso txapelketan parte hartzen du urtero.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Misiolaria Afrikan edo futbolaria. 7-8 urterekin galdera asko egiten nituen, ingurukoak kazetaria izango nintzela esaten hasi ziren eta ordutik hori dut buruan.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lasaitzeko, mendira joatea. Bestelakoan, legunekin egotea eta kontzertuetara joatea.

Bizitzeko toki bat?

Zarauzko San Pelaio auzoa.

Gustuko bertsolariak?

Joxe Agirre eta Unai Iturriaga.

Norekin arituko zinateke gustura ofiziokoa?

Maialen Lujanbiorekin eta Gorka Ojangurenekin.

Gustuko idazleak?

Milan Kundera eta Jose Luis Otamendi.

Gustuko musikaria?

Oso zaila zait hautatzea. Tom Waits eta Anari.

Kafe Antzokia ala Tabacalera?

Oraingoz Gaztelekua.

Illegorriak ala beltzaranak?

Illegorriak ere bai.

Egindako azken oparia?

Pijama bat.

Eta jasotakoa?

Oinarrizko argazkigintza liburua.

Data bat?

Uztailaren 2a.



Neska eta mutil izen bana?

Izenetan pentsatzeak gogaitu egiten nau. Bi esatearren, Janire eta Xanti.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Lanbidea dela eta, egunkari dezente irakurtzen ditut. Etxera Berria iristen da.

Gustuko telebista saioa?

Futbola ez den edozein kirol saio eta Radio 3eko kontzertuak.

Bereziki gorroto duzuna?

Ez dut programarik gorroto. Telebista gutxi ikusten dut, baina edozein kaka ikusteko gai naiz.

Liburu bat?

Joseba Sarrionaindiaren *Ni ez naiz hemengoa* eta Julio Cortazarren *Rayuela*.

Abesti bat?

Ezin dut erantzun. Bi disko aipatuko ditut: Dut taldearen *At* eta Will Oldham-en *I see a darkness*.

Filma bat?

Taxi driver.

Soinu bat?

Lantokitik ateratzen naizenean ateak ateratzen duena.

Usain bat?

Ardo onarena.

Janari bat?

Arroza, kubatar erara.

Ura ala...

Ardoa eta Huts tabernako garagardoa.



Entzumen Zentroak

**ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA,
ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO**

UROLA GARAIARAKO ZENTRO BERRIA



Areizaga, 4 • Tel.: 943 72 98 83 • URRETXU

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA